



AGINDUA, LEHENENGO LEHENDAKARIORDE ETA SEGURTASUNENKO SAILBURUARENA, DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO LEGEAREN AURREPROIEKTUA EGITEKO PROZEDURA HASTEAN ERABAKITZEN DUENA.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legeak arauak egiteko prozedura ezartzen du, eta 4.1 artikulua xedatzen du gaiaren gainean eskumena duen saileko sailburu titularraren aginduz hasiko direla prozedura horiek.

Agindu honen xede den prozeduraren antolamenduak, hastapenetik bertatik, araua egitearen egokitasunari buruzko erabaki bat hartzea eskatzen du, bai eta haren beharrari eta bideragarritasunari buruzko hausnarketa bat egitea ere.

Horregatik guztiagatik, eta 8/2003 Legearen 5.1 artikulua araberak hasiera-aginduak ezinbestean izan behar duen edukian oinarrituta, honako hau

EBAZTEN DUT

LEHENENGOA. Prozeduraren hasiera eta eskumena.

1. Agindu honen xedea Datu Pertsonalen Babesari buruzko Legearen aurreproiektua egiteko prozedura has dadin agintzea da.
2. Prozedura hasteko agindua emateko eskumenari dagokionez, 8/2003 Legearen 4.1 artikulua hau xedatzen du: "Xedapen orokorrak egiteko prozedura xedapen horien gainean eskumena duen saileko sailburuaren aginduz hasiko da".

Segurtasun Sailaren Egitura Organikoa eta Funtzionala arautzen duen urtarrilaren 19ko 6/2021 Dekretuaren 4.1 d) artikulua araberak, Jaurlaritzaren lehen lehendakariordea den aldetik, lehen lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburua izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren arteko harremanetarako organoa, araudi erregulatzailan ezarritakoaren arabera.

Horren ildotik, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren Estatutua onartzen duen urriaren 18ko 309/2005 Dekretuaren 1. artikulua berriaz xedatzen du Bulegoa zuzenbide publikoko entea izango dela, nortasun juridiko propioa eta gaitasun publiko eta pribatu erabatekoa izango dituela, herri-administrazioekiko inongo

loturarik gabe beteko dituela bere eginkizunak, eta Lehendakariordetzaren bidez dituela harremanak Eusko Jaurlaritzarekin.

Datu Pertsonalen Babesari buruzko Legearen aurreproiektuaren xedea da, alde batetik, Euskadin aplikatu beharreko araudiaren antolamendua eta funtzionamendua egokitzea honako hauen aurreikuspenetara: 2016/679 (EB) Erregelamendua; Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa; eta Datu Pertsonalak Babesteko maiatzaren 26ko 7/2021 Lege Organikoa, arau-hauste penalak prebenitu, detektatu, ikertu eta epaitzeko eta zehapen penalak betearazteko tratatzen diren datu pertsonalak babesteari buruzkoa; eta, bestetik, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren araubide juridikoa arautzea. Horrenbestez, aurreproiektu hau egiteko prozedura lehen lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuaren aginduz hasi behar da.

BIGARRENA. Lege-aurreproiektuaren xedea eta helburua.

Datu pertsonalen babesaren arloko arau-esparrua nabarmen aldatu da, 2018ko maiatzaren 25az geroztik, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua onartu eta erabat aplikatu delako (2016/679 Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen eta 95/46/EE Zuzentaraua —Datuak babesteko Erregelamendu Orokorra izenekoa— indargabetzen duena).

(EB) 2016/679 Erregelamenduak zuzeneko eragin osoa du estatu kideetan, eta funtsezko berritasunak dakartza, bai datuak babesteko oinarritzko eskubidearen funtsezko erregulazioari dagokionez, bai eskubide hori kontrol-agintaritza izenekoek gainbegiratzeari dagokionez. Agintari publiko horiek independenteak dira, eta estatu kide bakoitzak ezarriko ditu, pertsona fisikoen oinarritzko eskubideak eta askatasunak babesteko, tratamenduari dagokionez, eta Batasunean datu pertsonalen zirkulazio askea errazteko. Estatuan datu pertsonalen babesa arautzen duten lehen arauak onartu zirenetik, Estatuko eta autonomia-erkidegoetako hainbat kontrol-agintaritza batera egonik gauzatu da gainbegiratze-araubidea, horietako bakoitzak eskumen-eremu desberdinak dituztelarik.

Era berean, datuak babesteko erregelamendu orokorrak kontrol-agintaritzek garatu beharreko eginkizun eta ahal sorta zabala ezartzen du. Agintaritza horiek beren independentzia behar bezala bermatuko duten baliabideez hornituta egon beharko dute, funtsezko eskubidearen babes egokia bermatzeko funtsezko printzipio gisa.

Barne-zuzenbidea Erregelamendura egokitzeko, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa onartu zen. Lege horren VII. tituluko II. kapitulua datuak babesteko agintaritza autonomikoei buruzkoa da.

Berrikiago, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/680 (EB) Zuzentarauaren transposizioan (pertsona fisikoak babesten dituen datu pertsonalen tratamenduari dagokionez eskumeneko autoritateen arteko datuon zirkulazio askerekin lotuta prebentzio, ikerketa, detekzio, arau-hauste penalen auzipetze edo zigor penalen egikaritzearekin lotutako helburuetarako, eta Kontseiluaren 2008/977/JAI Esparru Erabakia bertan behera uzten duena), maiatzaren 26ko 7/2021 Lege Organikoa onartu da, arau-hauste penalak prebenitu, detektatu, ikertu eta epaitzeko eta zehapen penalak betearazteko tratatzen diren datu pertsonalak babesteari buruzkoa.

Lege organiko horren xedea da agintari eskudunek datu pertsonalak tratatzeari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzko arauak ezartzea, arau-hauste penalak prebenitzeko, detektatzeko, ikertzeko eta epaitzeko edo zehapen penalak betearazteko, segurtasun publikoaren aurkako mehatxuetatik babestea eta prebenitzea barne.

Aurreko gogoetak kontuan hartuta, Datu Pertsonalen Babesari buruzko Legearen aurreproiektu honen xedea da indarrean dagoen Datu pertsonaletarako jabetza publikoko fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean eta hura garatzen duten arauetan jasotako araubidea ordeztzea (bereziki, urriaren 18ko 308/2005 Dekretua, 2005eko urriaren 25eko 2/2004 Legea garatzen duena, eta otsailaren 25eko 2/2004 Dekretua, otsailaren 18ko 2/2004 Legea garatzen duena, eta 309/2005 Dekretua, urriaren 18koa, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren Estatutua onartzen duena), Euskadin aplikatzekoa den araudiaren antolamendua eta funtzionamendua honako hauetan jasotzen diren aurreikuspenetara egokitzeko: 2016/679 (EB) Erregelamendua, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, eta Arau-hauste penalak prebenitu, detektatu, ikertu eta epaitzeko eta zehapen penalak betearazteko tratatzen diren datu pertsonalak babesteari buruzko maiatzaren 26ko 7/2021 Lege Organikoa.

HIRUGARRENA. Arauaren bideragarritasun juridikoa eta materiala.

Lege ekimen honen jatorria herritarren eskubide digitalak bermatzeko beharrean datza, Konstituzioaren 18.4 artikulua xedatutakoaren babesean.

Konstituzioak legegileari ezartzen dion agindua da, eta aipatutako lege organikoetan jasotzen da. Autonomia-erkidegoek datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidea arau bidez garatzeko eta betearazteko eskumenak dituzte beren jarduera-eremuan. Datuak babesteko agintaritzaren autonomikoei, eta horien artean euskal agintaritzari, dagokie herritarren oinarritzko eskubide hori bermatzen laguntzea.

Proiektaturiko arauak, era berean, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren araubideari dagokionez, agerian uzten du Autonomia Estatutuaren 10.2 artikulua Euskal Autonomia Erkidegoari eman dion autoantolaketa-ahala, autogobernua instituzionalizatzeko eta autonomia-administrazioa osatzen duten organo, administrazio-unitate edo erakundeak sortu, aldatu eta ezabatzeko organoak arautzeko.

Beraz, izaera instrumental nabarmena duen atribuzio bat da, Autonomia Erkidegoko botereen erabileraren zerbitzura dagoena. Ahal hori erabiltzea legitimatuta dago, beraz, berariazko arau-laguntzarik behar izan gabe, harreman instrumentala dagoelako kasuan kasuko antolaketa-jardueraren eta horrek eragiten dituen eskumen materialen artean.

LAUGARRENA. Ordenamendu juridikoan izango duen ondorioa

Arestian azaldu den bezala, Datu Pertsonalen Babesari buruzko Legearen aurreproiektuaren xedea da Euskadin aplikatzeko den araudiaren antolamendua eta funtzionamendua egokitzea honako hauen aurreikuspenetara: 2016/679 (EB) Erregelamendua; Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa; eta arau-hauste penalak prebenitu, detektatu, ikertu eta epaitzeko eta zehapen penalak betearazteko tratatzen diren datu pertsonalak babesteari buruzko maiatzaren 26ko 7/2021 Lege Organikoa.

Era berean, lege-aurreproiektuaren xedea Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren araubide juridikoa arautzea da.

Beraz, proiektaturiko legea indarrean jartzeak indarrik gabe utziko du Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean eta hori garatzeko arauetan jasotako araubidea, eta, bereziki, urriaren 18ko 308/2005 Dekretua, aipatu 2/2004 Legea garatzen duena, eta urriaren 18ko 309/2005 Dekretua, Datuak Babesteko Euskal Bulegoa onartzen duena.

BOSGARRENA. Aurrekontuan duen eragina

Proposatutako arau-egokitzapenak, bai eta orain Datuak Babesteko Euskal Agintaritza izena hartu duenaren araubide juridiko berriak ere, eragin ekonomikoa izango du Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren aurrekontuan, eta hori ezinbestean aipatu beharko da aurreproiektuarekin batera doan memoria ekonomikoan.

SEIGARRENA. Gaia dela eta egokitzat jotzen diren izapideak eta txostenak

1. Datu Pertsonalen Babesari buruzko Legearen aurreproiektuaren idazketan, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legean eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan xedatutakoa bete behar da, herritarrek lege-mailako arauak egiteko prozeduran parte hartzeari dagokionez.

Legearen aurreproiektua idazteko, agindu honetan xedatutakoa hartuko da oinarritzat, eta kontuan hartuko dira bilatzen diren helburuetara hobekien egokitzen diren aukera guztiak, bai eta aurreikusitako araudia egoki eta legezko izango dela ziurtatzeko egingo diren kontsulten emaitzak ere.

Lege-aurreproiektua idatzi baino lehen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 133. artikuluan aurreikusitako aurretiko kontsulta publikoaren izapidea egin behar da, arauak uki ditzakeen subjektuen eta haien erakunde ordezkagarrienen iritzia jasotzeko; izan ere, lege-aurreproiektuak Konstituzioaren 18.4 artikuluan araututako herritarren oinarritzko eskubideari eragiten dio.

Lege-aurreproiektuaren testua idatzi ondoren, Justizia Araubidearen, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritzak horri buruzko txosten juridikoa egingo du. Txosten horretan, aurreproiektuaren funts objektiboa aztertuko du, bai eta edukia legearekin eta zuzenbidearekin bat datorren eta araugintza-teknikaren jarraibideak betetzen dituen ere, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legearen 7.3 artikuluan eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 10.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Halaber, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legearen 10.3 artikulua betez, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak memoria ekonomiko bat egingo du. Memoria horretan, proiektatutako arauak eragingo duen kostuaren zenbatespena adieraziko da, gastu eta diru-sarrerak zenbatuta, eta, orobat, adieraziko da aurrekontuetan izango duen eragina.

Generoaren arabeko eraginaren ebaluazioaren txostena egingo da, horretarako oinarri gisa hartuta otsailaren 18ko 4/2005 Legeak (emakumeen eta

gizonen berdintasunerakoa) 19. artikuluan ezarritakoa eta, halaber, Gobernu Kontseiluaren 2012ko abuztuaren 21eko Erabakiak ezarritakoa; erabaki horrek genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak onartzen ditu eta neurriak hartzen gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak desagerrarazi eta gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko.

2. Dokumentu horiek egin ondoren, lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuak dekretu-proiektuari aldez aurreko onarpenera emango dio, agindu bidez.

3. Aldez aurreko onarpenaren ondoren, testua Eusko Legebiltzarrera bidaliko da, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 56. artikuluan 1. apartatua ezarritakoari jarraikiz (ekainaren 2ko 8/2016 Legeak sartutako aldaketaren ondoren). Era berean, 8/2016 Legeak 2. apartatu bat sartzen du 56. artikuluan, eta horren arabera Aholku Batzorde Juridikoari igortzen zaion dokumentazio bera, aldi berean, Eusko Legebiltzarrari ere igorri beharko zaio, legebiltzar-taldeek dokumentazio hori ezagutu dezaten.

4. Hasteko agindua, aldez aurretik onartzeko agindua eta arau-proiektua Legesarea lankidetzaren gunean argitaratuko dira.

5. Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren Legearen 9. artikulua ezarri duenaren arabera, lege-aurreproiektua Jaurlaritzako sailei helaraziko zaie, parte har dezaten eta kontsulta egiteko.

6. Beharrezkotzat jotzen dira jendaurreko informazioaren izapidea eta entzunaldiaren izapidea. Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren Legearen 8.1 artikuluan xedapena egiaztatzen da; horren arabera, arau-proiektuak herritarren eskubide eta bidezko interesei eragiten badie, kasu honetan bezala, entzunaldiaren izapidea egin beharko da.

Era berean, proiektaturiko arauaren izaera dela eta, komeni da jendaurrean jartzea.

7. Ez da beharrezkotzat jotzen Europar Batasunean inolako izapiderik egitea; izan ere, hasteko agindu honen 2. puntuan azaldu den bezala, Europako araudia txertatuta dago gure barne-ordenamendu juridikoan.

8. Arau-xedapenak egiteko indarrean dagoen prozeduraren arabera, jarraian aipatzen diren aholku-organoen izapide eta irizpenak bidezkoak, nahitaezkoak eta/edo komenigarriak izan daitezke, izapide horiek arautzen dituzten xedapenek ezartzen duten unean eta moduan:

- a) Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren txostena, (Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legea, 17.1 h) artikulua).
- b) EMAKUNDE - Emakumearen Euskal Erakundearen txostena, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak (emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa) 19.-22. bitarteko artikuluetan xedatutakoa betetzeko.
- c) Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena (233/2012 Dekretua, azaroaren 6koa, Xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duena, 2.1 artikulua).
- d) Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritzaren txostena (Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 12.1 artikulua).
- e) Enpresetan duen eraginari buruzko txostena, Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari laguntzeko ekainaren 28ko 16/2012 Legearen 6. artikuluan ezarritakoaren arabera. Artikulu horren arabera, “1. Euskal Autonomia Erkidegoak sustatutako edozein arauketa edo arau berri bideratu aurretik, Eusko Jaurlaritzak bere zerbitzu juridikoen bidez ebaluazio-txostena egingo du enpresak sortzearen, abian jartzearen eta haien funtzionamenduaren gaineko eraginari buruz”, eta txosten hori nahitaezkoa da xedapen orokorrak egiteko prozeduran.

Beraz, teknikoki nahitaezkoa bada ere, nahikoa izango da sailaren txosten juridikoan aipatzea, proiektaturiko arauaren xedeak ez baitu inolako eraginik enpresen eraketan, abiaraztean eta funtzionamenduan.

- f) Ekonomiaren eta arauen kontrolari buruzko txostena, Kontrol Ekonomikoko Bulegoarena, Ekonomia eta Ogasun Sailaren Egitura Organikoa eta Funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 69/2021 Dekretuaren 4.a) artikuluan ezarritakoaren arabera, honako hauetan jasotakoarekin lotuta: urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bateginaren III. tituluko IV. kapitulua, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretua.

- g) Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena, batzorde hori arautzen duen azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 3.1.a) artikulua betez; izan ere, lege-aurreproiektuei buruzko kontsulta egin behar zaio, horien gaia eta xedea edozein dela ere.

9. Halaber, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean xedatutakoaren arabera, Legegunean argitaratuko da, lege horretan xedatutako publizitate-agindua betetzeko eta proiektuaren testua euskaraz eta gaztelaniaz argitaratzeko.

10. Dekretu-proiektuaren izapideak bukatuta, eta Gobernu Kontseiluak araua onartu baino lehen, prozedura osoaren memoria labur bat prestatuko da. Memoria horretan aurrekariak eta egindako izapideak jasoko dira, 8/2003 Legearen 10.2 artikulua ezarritakoa betez. Memoria horretan berriaz aipatuko da proiektutako arauak eragingo dituen administrazio-kargen eragina.

ZAZPIGARRENA. Idazketa-sistema

Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 8.1 artikuluan xedatutakoa betez, dekretu-proiektua bi hizkuntzetan idatziko da, publizitate ofizialaren ondorioetarako.

Horretarako, IVAPeko Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak (IZO) testua itzuliko du, arau-xedapen orokorrak elektronikoki izapidetzeko aplikazio informatikoaren Erabiltzailearen Eskuliburuan eta Eusko Jaurlaritzak 2013ko maiatzaren 14an hartutako Erabakian (lege, legegintza-dekretu, dekretu edo agindu forma hartzen duten xedapen orokorrak bi hizkuntzatan egiteko neurriak onartzen dituen) aurreikusitakoaren arabera.

ZORTZIGARRENA. Hasteko agindu hau bidaltzea.

Agindu hau Justizia Araubidearen, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritzara bidaliko da, lege-aurreproiektua egin eta aipatutako prozedura izapidetu dadin.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren datan.

Josu Iñaki Erkoreka Gervasio
Lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburua